

An illustration of a person with dark hair in a bun, wearing a light green long-sleeved shirt, purple trousers, and a brown backpack. They are shown from the side, reaching out with their right arm towards a large, white, rounded mountain peak. The background features a blue sky, a green field with small dark spots, and a dark, textured foreground that looks like a city or town. The overall style is flat and graphic.

URRATSEZ URRATS ARABAKO ERRIOXAN

OYÓN-OION EZAGUTZEKO
IBILBIDEAK, ZEURE BURUA
ZAITZEN DUZUN BITARTEAN

URRATSEZ URRATS ARABAKO ERRIOXAN

OYÓN-OION EZAGUTZEKO
IBILBIDEAK, ZEURE BURUA
ZAITZEN DUZUN BITARTEAN

Eskuetan daukazu Oyón-Oiongo ingurutik ibilaldiak egiteko proposamena. Barruan aukeraz betetako hiru ibilbide desberdin aurkituko dituzu. Baliteke zure herriko historiari buruz gehiago jakin nahi izatea edo... etorri zaren lehenengo aldia da, berriz? Orduan, esateko asko duen tokia aurkituko duzu. Agian ariketa fisikoa egiten hasi zara osasuna hobetzeko... edo ibiltzeko ohitura bat sortu duzu dagoeneko baina aukera gehiago izan nahi dituzu! Edozein arrazoi dela ere, liburu hau interesgarria da zuretzat.

Ibilaldiak edonork egiteko aukera izatea saiatu gara, berdin da bere gaitasunak eta egoera zein diren. Dena den, mugitzeko arazorik ez baduzu eta paisaiatz gehiago gozatu nahi baduzu, ibilbidea luza dezakezu ibilaldi bakoitzaren deskribapenean eskuragai dagoen QR kodearen bidez aurkituko duzun aukera hautatuz.

Hona iristeko, *urratsez urrats* joan gara. Proiektu honetan herriko ehun pertsonak hartu dute parte, toki interesgarriak aukeratzen, ingurua mapan adierazten, ibilbideen irisgarritasuna ebaluatzen eta edukiak orrazten. Hemendik aurrera, bidea zurea da!

Eginda



Finantzatuta



Bitartean Jolasean Elkarteak koordinatu du proiektua eta idatzi ditu testuak. Diseinua eta maketazioa **Estudio Navajas** estudiokoak dira. Eskerrak eman nahi dizkiogu **Manuel González Pastor** egileari "**Oyón-Oion-Ullone: El pueblo que surgió junto a la fuente milenaria**" liburuagatik, liburuxka honetarako oso informazio erabilgarria eskaini baitigu, eta edukiak orrazteagatik.

INFORMAZIO GEHIAGO: www.bitarteanjolasean.org | entretanto.jolasean@gmail.com

IRUDI-TESTUA



Ikur honek haur-kotxeak eta gurpil-aulkiak igarotzea eragozten duen arkitektura-oztopoa dagoela zehazten du.



Ikur honek zailtasunaren bat dagoela zehazten du, besteak beste gurpil-aulki bat igarotzea oztopa dezakeen zoladura irregularra dagoela edo ibiltzeko espaloirik ez dagoela edo igoera handia duena.



Atsedena hartzeko guneak



Aparkaleku



Ura duten guneak



Autobus geltokia

Zure egoera fisikoa hobetu nahi baduzu, ibilaldi bakoitzean **QR kode** bat aurkituko duzu, besoen eta hanken mugikortasuna errazteko edo indarra lantzeko ariketa batzuk eskuratu ahal izateko. Ibilbidean horiek egiteko puntu batzuk zehaztu dira, eta planoan adierazi egin dira honako ikono hauekin:



Mugikortasuna sustatzeko ariketak



Indarra lantzeko ariketak

1. IBILALDIA. OYÓN-OION, HERRI BAT TOLOÑOKO MENDILERRROAREN OINALDEAN

Irudika dezakezu nolakoa zen herri hau hasieran? Eta zergatik erabaki zuten antzinakoek hemen gelditzea? Ibilaldi honetan aroetan zehar bidaiatzeko aukera emango digun Oyón-Oiongo zati batetik ibiliko gara, leku hau orain dela mila urte baino gehiago nola zen ezagutzeko, lehenengo biztanleak zergatik gelditu ziren hemen ulertzeko, eta herriaren eta mendilerroaren arteko harremana nola aldatu den ikusteko, horren oinaldean gaude eta.

Herri batean ere sentitu daitekeen eta gure bizitza hobetzen duen historiaz eta naturaz gozatzera gonbidatzen zaitugu.

1. PLAZA NAGUSIA

Plaza Nagusia beti izan da hainbat tokitatik datozen pertsonak hartzen dituen herriaren elkartzeko tokia.

XIV. eta XV. mendeetan, Oyón-Oion udalerriak Frantziako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako biztanleak jasotzen zituen; Erdi Aroan, ordea, monjeak, merkatariak, nobleak eta erromes joaten ziren; azken hamarkadetan, jendearen aniztasuna handituz joan da, herria toki kosmopolita bihurtu arte. Ibilaldia hemen hasi zein bukatuz gero, herriaren giroa sentituko duzu. Izan ere, plaza da horretaz gozatzeko lekua.

2. IKUSPEGI PANORAMIKOA

Oyón-Oiongo jatorriak aurrean daukazu Toloñoko mendilerroarekin zerikusi handia dauka.

Leku honetara iritsi ziren lehenengo pertsonak urez betetako tokia aurkitu zuten, nahiz eta eskualde lehorra izan. Sakanak eta mendien oinaldean jaiotzen ziren urtaroko errekek ur-iturria ziren. Ur hori, Oyón-Oionetik gertu dagoen lurralde laura iristean, urmaeletan metatu egiten zen. Jatorri naturaleko zenbat urmael ezagutzen dituzu herritik hurbil? Ehunka urte igaro diren arren, urak udalerriko bizitzarako ezinbestekoa izaten jarraitzen du.

3. ITURRI ZAHARRA

Ullone tokiko traol-hitzik zaharrena da, eta herria Nafarroako Erresuma osoan ezagutarazteko balio izan zuen.

Ullone hitzak "begia" esan nahi du hizkuntza erromanikoan, eta iturri honi dagokio; urte osoan zehar ateratzen zen ura zulo honetatik, eta hori ez zen ohikoa eskualdean. Oyón-Oiongo izenaren jatorritzat hartzen da ere bai.

Hizkuntza erromanikoa zen garai hartan gortean hitz egiten zena; beraz, "hizkuntza ofizialeko" hitz bat aukeratzea modu azkar eta segurua izan zen Erdi Aroan herria Nafarroako Erresuma osoan ezagutarazteko.

4. BARATZEAK

Tradizioz baratzeak jartzera zuzendu diren lursailek ura gertu dagoela erakusten dute.

Gaur egun ikusten den ubidea Putzuetako Amildegiaren zati bat da, Toloñoko mendilerroaren oinean jaiotzen dena. Orain ibilgua herriko tarte osoan dago kanalizatuta, baina milaka urtez ura amildegitik iragan da era naturalean, elikagaiak landatzeko beharrezkoak diren nutrienteak lurrian utziz doan "hodi" bat osatuz. Letxugak, porruak, tomateak, piperrak, azak, babak... Sasoiaren arabera, landare eta kolore desberdinak ikusiko dituzu. Baten bat ezagutzen duzu?

5. RIO GRANDE PARKEA

Gune berdeek pertsonen osasuna hobetzen dute eta klima-aldaketaren ondorioak arintzen dituzte.

Zuhaitzek atmosferako CO2-a harrapatzen dute, eta belarrez estalitako lurrak iragazkortasuna hobetu egiten du. Horrez gain, itzala duten guneek tenperatura doitzen laguntzen dute, eta horri esker bizi-kalitate hobea lortzen da. Egundero, Oyón-Oionen egoteko tokirik hoberenetako bat da hau! Ondo begiratzen baduzu, tartetxo batez egoteko txoko berezi bat aurkituko duzu, ziur.

6. AMILDEGIA

Ikusi makusi! Zer ikusi... eta zer ez ikusi? Hemen Putzuetako Amildegia bistatik desagertu eta errepedearen azpian ezkutatu egiten da.

XX. mendeko garapenak *azpiegitura grisak* (errepedeak, gune industrialak, eta abar) eraikitzeari eman zion lehentasuna, gune berdeak eta *urdinak* kontserbatu beharrean, hau da, ingurumenerako onurak ekarri eta, ondorioz, bizi-kalitatea hobetu egiten duten guneak

kontserbatu beharrean. Adibideren bat ezagutzen duzu non osagai naturalak herrien eta hirien plangintza urbanistikoaren aliatu bihurtu diren?

7. AMILDEGIA

Milaka urtez, herri honetako biztanleek paisaia moldatu dute, mendi-lerrotik datorren urak egiten duen bezala.

Ibilaldian, berarekin joango gara bidearen zati txiki batean, hiriko bizitzarekin lotuagoa dagoen zatian, hain zuzen ere. Ura bizitza da, gure etxe eta kaleen barruan eta kanpoan. Hau ez da ubide bat, ezta hustubide bat ere! Batzuetan lehortu egiten den amildegia da, baina egoera aldakorrera egokituta dauden landareak eta animaliak bizi dira bertan eta, espezializazio horri esker, gure "etxea" anitzagoa da. Oyón-Oion bezala. Bidaia ona izan!

Ibilaldia luzatu eta Putzuetako Amildegia ingurua hobeto ezagutu nahi baduzu, kode hau erabil ezazu hautazko ibilbide bat jarraitzeko (7,3 km), Wikiloc aplikazioan eskuragai. Hori eginez gero, San Justo parkeraino iritsiko zara giro landatarra duen eta mahastiz eta oli-bondoz beteta dagoen ingurutik ibiliz. Gainera, "berezko eran" ikusiko duzu amildegia. Kasu honetan, ibilbidea alderantziz egitea gomen-datzen dizugu, 7. puntutik hasita.



Jarraitu kode hau mugikortasun-arietak egiteko eta indarra lantzeko.

1. IBILALDIA OYÓN-OION, HERRI BAT TOLONOKO MENDILERROAREN OINALDEAN



GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA 1H

LUZERA 1,5Km

PILATUTAKO MALDA ↑0m ↓20m

LUR-MOTA *espaloia, zolatutako kalea eta zolatutako bidexka.*



Iturri Zaharraren ondoan dagoen ikurrak iturriraino iristeko eskailerak besterik ez daudela zehazten du, baina kaletik bertatik ikus daiteke.

Ibilbidea Oyón-Oiongo hegoaldean bukatuko da, udalerriaren erdigunetik 700 metrotara.

2. IBILALDIA. OYÓN-OION LEKU GARRANTZITSUA ZENEAN NAFARROAKO ERRESUMAN

Bazenekien bizi garen eskualdea, Arabako Errioxa, lehen Nafarroako Sonsierrako parte zela? Orain dela ehunka urte izan zen, baina lurralde hau antzinako Nafarroako Erresumaren barruan egon zen. Erdi Aroaren garaia zen, XV. eta XVIII. mende bitarteko aldia, hain zuzen ere. Oyón-Oion bi hiri garrantzitsuen artean zegoen; oso pertsona garrantzitsuak igaro ziren hemendik eta oso gertaera aipagarriak nagusitu ziren.

Ibilaldian garai hartako Oyón-Oiongo herrixkako bizitza nolakoa zen jakingo duzu, eta gaur egungo paisaia zer geratzen den ezagutuko duzu. Hasiko gara?

1. PLAZA NAGUSIA

Plaza Nagusia toki baliotsua da herrian, Oyón-Oion Erdi Aroan izan zen bezala.

Plaza hau erdigunean dago eta kale askotatik irits daiteke bertara. Erdi Aroan, Oyón-Oion leku nabarmena izan zen Nafarroako Erresuman bizi ziren pertsonentzat, erdi bidean baitzegoen Iruña eta Naiararen, erresumako bi hiriburuen, artean. Haietan biltzen zen erresuma zaharrean bizi izan zirenen bizitza markatzen zuten botere politikoa eta erlijiosoa. Imajina dezakezu zer pertsona igaro ziren hemendik?

2. GR ZUTOINA

Garai hartan, “*Errege-bidea*” gaur egun autobidea bezain garrantzitsua izan zen.

Santiago de Compostelara erromesaldian joaten zirenek salerosten zuten horretan zehar, eta Nafarroako errege-familiaren zerbitzura zeuden guztiak bide honetatik ibiltzen ziren. 1380. urtean Karlos III.a Noblea ere, Nafarroako erregea, hemendik Galiziako hiriburura igaro zen erromes gisa. Zer uste duzu aurkituko luketela inguruan? Gaur, beste hiru ibilbideekin partekatzen du zati bat, eta horiek dira GR-38, Ardoaren eta arrainaren ibilbidea; GR-99, Ebroren bide naturala; eta Arabako Errioxa herriarteko GR ibilbidea. Guztiek paisaiatzat eta his-

toriaz gozatzeko antzinako bideei onura ateratzen dieten pertsonak hartzen dituzte.

3. BIDE GURUTZEA

Assako zubia, gaur egun Mantibleko zubia izena duena, Ebro ibaia gurutzatzeko toki bakarra zen.

Errege-bidetik Naiararantz edo Santiagorantz joateak Iberiar penintsulako bigarren ibairik luzeena eta jariotsuena zeharkatzera derrihortzen zuen. Ia 200 urtez ez zegoen Ebro ibaia zeharkatzeko beste modurik eskualdean; izan ere, Logroñoko harrizko zubia mende batzuk geroago eraiki zen.

Badakizu nondik datorren “Assa” izena? Miguel Larreina González egileak dio “jasa” hitzetik datorrela, hau da, ibaien uhaldiei lotuta dagoela izena.

4. BEGIRALEKUA

Oyón-Oiongo udal-barrutia gaur egun baino zabalagoa izan behar zuen hegoaldetik eta ekialdetik.

Hemendik udalerraren zati handia ikus dezakezu. Herri bat noraino iristen zen zehazteko moduetako bat zen “bizilagunek egun berean joanez eta etorriaz landu zitzaizkion lurak” kontuan hartzea. Zure ustez, zein zen tarte hori? Oyón-Oion dagokionez, gutxi gorabehera 4 km inguruan. Tartearen ez da iristen ez Logroñora ez Vianara, denboraren poderioz garrantzia eta boterea irabaziz joan ziren bi hiribildu.

5. BIDE GURUTZEA

Orain dela 1.000 urte baino gehiago hemen bizi zen jendea dagoneko!

Nahiz eta oso zaila den zehatz-mehatz jakitea noiz sortu zen Oyón-Oion herria, orain zauden lekutik tarte gutxira X. mende inguruan hemen bizi izan ziren pertsonen “aztarnak” aurkitu ziren: giza itxurako zenbait hilobi zituen nekropolia (gaur egun desagertuta dago). Horrelako hilerriak Erdi Aroan nagusi ziren. Zenbat familia zeuden garai hartan, zure iritziz? Erdi Aroan zehar ez ziren 30era iritsi!

6. MAHASTIA

Erdi Aroan, Nafarroako Sonsierran zereala hazten zen batez ere.

Oyón-Oion mahastietara eta ardora estu-estu lotuta dagoen herria da, baina garai hartan norberaren kontsumorako ziren, besterik ez. Hala ere, bi gertakarien ondorioz mahastiak eskualde osoan zabal-



du ziren: alde batetik, Gasteizko ardoaren eskariak gora egin zuen, biztanleen kopurua hazten ari baitzen; beste alde batetik, klima-hoztea gertatu zen, eta horrek eragin zuen Arabako beste toki batzuetan mahatsondorik hazi ezin izatea. Gaur ezagutzen duguna ez da beti horrela izan!

7. OLIBADIA

Olibondoen hazkuntzak indar handia hartu zuen, eta ondorioz eskualde osoaren laborantza-paisaia aldatu zen.

Hainbat lekutan aurkitutako aztarnek diotenez, erromatarren garaitik bazeuden olibondoak lurraldean; dena den, Erdi Aroan Karlos III.a Nobleak sustatu zuen laborantza hori bere erresumaren zati batean. Badirudi, gainera, asko maite zuela eskualdea.

Inguruan ugariak diren lurzoru elkor eta harritsuak bikainak dira mahatsondoarentzat eta olibondoarentzat. Hala ere, landatzeko unean, lan egiteko zailenak izaten ziren lurretan jartzen zen olibondoa.

8. ITURRI ZAHARRA

Iturri Zaharrak bi gauza garrantzitsu eman dizkio Oyón-Oioni: ura eta bere izena.

Iturri honetatik mila urte baino gehiagoz atera da ura! Urte osoan zehar ura edukitzeak egin zuen herria Iruñetik Naiarara zihoazenean atseden hartzeko leku ona izatea.

Ullone hitzak "begia" esan nahi du hizkuntza erromanikoan (nobleen eta monarken hizkuntza, alegia). Beraz *Ullone*, ura ateratzen duen

"begia", Oyón-Oion izenaren jatorria da. Bazenekien?

9. SANTA MARIA ELIZA

Zortzi mendez, Oion izan zen Iruñeko Elizbarrutiaren mendeko Nafarroako Sonsierrako herri bakarra.

Eliza hau eraiki aurretik, Antso Nagusia nafar erregeak lursail batzuk oparitu zizkion Iruñeko Katedralari, apezpikuari *domus pausatoria* emanez, hau da, erresumako bi hiri nagusien arteko bidaietan atsedeen hartzeko etxea emanez. Oyón-Oion Iruña eta Naiararen arteko leku estrategiko bihurtu zen, eta Iruñeko apezpikutzaren mendean egotea komeni zen. Inguruko herriak, ordea, Calahorrako Elizbarrutikoak izan ziren.

Hasi genuen bezala amaitu dugu ibilaldia, pertsonen arteko eta hiribilduen arteko topalekuaz hitz eginez. Ibilaldia pixkatxo bat gehiago luza-tu nahi baduzu, kode hau erabil ezazu hautazko ibilbide bat jarraitzeko (4,7 km), Wikiloc aplikazioan eskuragai. Aukera honekin, Santa Maria mendiaren inguruan ibiliko zara, mahastien eta pinuen artean doazen bideak jarraitzen. Azkenik, punturik garaienera iritsiko zara, eta bertatik udalerria begiratzeko aukera izango duzu



Jarraitu kode hau mugikortasun-arietarako egiteko eta indarra lantzeko.

2. IBILALDIA OYÓN-OION LEKU GARRANTZITSUA ZENEAN NAFARROAKO ERRESUMAN

GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA	Ordu bat
LUZERA	3Km
PILATUTAKO MALDA	↑50m ↓40m
LUR-MOTA	espaloia, zolatutako kalea. Errepidea. Zolatutako pista.



Iturri Zaharraren ondoan dagoen ikurrak iturriraino iristeko eskailerak
besterik ez daudela zehazten du, baina kaletik bertatik ikus daiteke.

3. IBILALDIA. IBILALDIA ARO MODERNOAN BARRENA

Zer esan nahi du "modernitate" hitzak zuretzat? Zer datorkizu burura entzuten duzunean? Agian harrituta geldituko zara, Aro Modernoa XV. mendetik XVIII. mendera doan historiako garaia baita. Hori "antzinakoa" dirudi, baina orduan iritsi ziren Europa-ra aurrerapena, komunikazioa eta arrazoia. Erdi Aroko bizitzarekin alde handia zegoen.

Mundua asko aldatu zen, baina poliki-poliki. Kapitalismoa garatuz joan zen, eta itsasoz bestaldeko inperioak, estatu-herrialdeak eta gizakiaren eta gizartearen kontzeptu berriak sortu ziren. Gure eskualdean, herri guztiak Arabakoak ziren, Nafarroakoak izan beharrean, eta Arabako Errioxaz hitz egiten zen. Eta Oyón-Oionen... zure ustez, zer ekarri zion herri honi modernitatea iristeak?

Ibilbide honek oso presente dagoen iraganera hurbilduko zaitu, gaur egungo hiriko ondare historikoaren eta artistikoaren parte diren jauregi eta landa-eraikuntzen artean ibiliz. Goza ezazu!

1. PLAZA NAGUSIA

1643. urtean, Oyón-Oionek Biasteriko herrixka izateari utzi zion eta hiribildu titulua lortu zuen.

Garai hartan, soroetatik uzta onak ateratzen ziren eta Ebroren bi ibaiertzen arteko merkataritzak onurak sortzen zituen. Horri esker, 350 biztanle besterik ez zituen herri honek hiribildu tituluaren kostu handia ordaindu ahal izan zuen. Handik aurrera, Oyón-Oionek burujabetasuna izan zuen bere arazoak kudeatu eta ebazteko.

2. SANTA MARIA ELIZA

XVI. eta XVII. mendeetan zehar, herria aberatsa eta oparoa izan zen.

Santa Maria elizaren eraikuntza, bere *Giraldarekin*, garai hartako aberastasunaren erakusgarri da. Lurrarekiko mendekotasunaren erakusgarri ere bai. Izan ere, soroetan lortutako produktuetatik bizi zen herri baterako, zeruen "bendizioa" lortzea ezinbestekoa zen. Prozesioak, errogatibak, eskerrak emateko ekintzak, santuak kaleetan izatea eta eskualdeko elizarik garaiena eta politena eraikitzea uzta onak eta ugariak bermatzen saiatzen ziren adibide dira. Oraindik ere zalantza-

rik baduzu kanpandorrearen izena nondik datorren, galdetu herriko edozeini.

3. PORTUKO MARKESAREN JAUREGIA

Nobleziaren tituluak gizonek eta lehensemeek bakarrik oinordetzen zituzten arren, amaren aldetik ere transmiti zitezkeen.

Jauregi hau Portuko Markesgoarena izan zen. Joaquín Ignacio Barrenechea y Erguiñigori 1741ean eman zitzaion titulua lehenengo aldiz, erregeari eskainitako zerbitzuengatik. II. Portuko Markesak emakumeek osatutako ondorengotza besterik ez zuen izan; beraz, titulua bere emakume ilobaren semeari, José Antonio Martínez de Pisón izenekoari, pasatu zitzaion, eta III. Portuko Markes bihurtu zen. Martínez de Pisón familia izan zen jauregi honen jabea, harik eta, 1861ean, *Bodegas Faustino* upategien sortzaileak bere mahastiekin batera erosi zuen arte.

4. BURETAKO KONDEEN JAUREGIA

Familia baten armarrria denboran zehar alda daiteke.

Etxe honetan bizi izan ziren Buretako Kondeak, Zaragozako probintzian kokatuta dagoen Bureta herritik zetorren familia-linea. Ezkontzako aliantzek eta ondorengotzaren faltatik eratorritako herentzietan izandako aldaketek aldatu egin zuten enblemaren antolaketa. Horregatik aurki ditzakegu leinu bereko hainbat armarri. Ezagutzen duzu Buretan dagoen Kondeen jauregia? Ikusten baduzu, Oyón-Oiongo etxe honetakoa ez den beste armarri bat aurkituko duzu.

5. ELURTEGIA

Oyón-Oiongo elurtegia oso baliabide preziatua zen, eta udalarena zen.

Esaten da Santa Maria elizako soberazko harriekin eraiki zutela, bazenekien? Nork ustiatzen zuen erabakitzeke, enkantean ateratzen zen. Elurtegiar arduratzeak urte osoan ematen zuen lana: udan eta udazkenean, lastoa jasotzen; neguan, ordea, elurra. Betetzen hasteke, hondoa lastozko geruza batekin estaltzen zen. Ondoren, elur-pilotak jartzen ziren eta, jarraian, zapaldu egiten ziren oinak, palak edo mazoak erabiliz. Prozesua errepikatzen zen bete arte. Lan gogorra, ezta?

6. SOROAK

Herriaren inguruan daude hiribildu hartako hiru laborerik ugarienak: mahastiak, zerealak eta olibondoak.

Baina, bazenekien garai batean, gainera, lihoa eta kalamua hazi zi-rela Oyón-Oionen? Hainbat barazki eta fruta-arbola mota asko ere hazten ziren. Gaur egun labore-aniztasun gutxiago dagoen arren, zenbat kolore ikusten dituzu? Urtaro bakoitzean desberdinak dira.

Herrian mahasti-sailak handituz zihoazen baina, tarte batez, Logro-ñoako mahastiek hain soldata onak eskaini zituzten, non tokiko orde-nantza batek debekatu egin baitziren herritarrei ondoko hiriko soroak lantzerantz joatea, ez baitzituzten haien mahastiak zaintzen.

7. TXABOLA

Arabako Errioxa da km2-ko txabola (*guardaviñas*) gehien dituen munduko eskualdea.

Honela dio gaztelaniazko esaera batek: *"Cabra en viña, peor que la tiña"*, eta hori da Oyón-Oionek Kuadrillan dauken 1.700 txaboletatik 139 txabola izatearen arrazoietakoa bat! Landa-eraikin hauek XVI. mendean agertu ziren, mahatsaren salneurriak gora egin zuenean eta mahastietara zuzendutako azalera handitu zenean. Mahasti bat-zuk urrun zeuden, udalerritik sakabanatuta, eta ahuntz-talde eta ar-talde ugari zeukatenez, beharrezkoa zen lanaldi luzeetan babesteko lekuak edukitzea. Txabola asko dauken arren, horiek mantentzeko zailtasunak direla eta, pixkanaka desagertzen ari dira, eta horiekin batera gure landa-kulturaren zati bat ere galdu egiten da.

8. BIDEGURUTZEA

Oyón-Oionen 8 baseliza egon ziren gutxienez, eta askotarako era-biltzen ziren.

Garai hartan, baselizek pertsona behartsuak, gaixoak eta errome-saldian zeudenak hartzen zituzten; behar izanez gero, hilerri gisa ere erabiltzen ziren.

Kokatuta zauden tokitik hurbil, San Sol baseliza zegoen. Ezer gerat-zen ez den arren, Santa Maria elizan landutako eguzkilore bat duen kapitela bat dago, gainean birjina bat eserita duela. Uste da bai kapi-tela bai birjina desagertutako baselizarekin lotuta daudela. Egiaztatu nahi?

9. EZKUTUA

Aro Modernoan oso ohikoak izan ziren *Kaparetasunaren Kartak*, fa-milia baten "odol-noblezia" ziurtatzen zuen epaia, hain zuzen ere.

Armarri honen jabea zen Joaquín del Camporen arbasoak eskatu zu-ten familietako bat izan zen. Badakigu Oyón-Oionen gutxienez sei bizilagunek eskatu ziotela udalari. *Odol-garbitasuna* onartuta, familia

batek zerga-salbuespenak eta bestelako ordainketa eta zerbitzuak jaso zitzakeen eta, gainera, justizia pribilegiatua lortu.

10. KALEAREN IZENA DARAMAN PLAKA

Oyón-Oiongo zenbait kale eta barrutik garai batean han egon ziren baselizei zor diete izena.

Santa Maria mendiak, San Justo parkeak edo Santa Ana, Santa Luzia edo orain zauden kaleak, San Martin kaleak, gogorarazten digute duela gutxi baseliza bat zegoela hemendik gertu. Ikusi ezin dugun zin egiteko San Martingo baselizak, gainerako funtzio berak izateaz gain, erabilera berezia zuen. Asma dezakezu? Alkatearen, prokura-doreen eta epaimahaien karguak "zin" egiten ziren eta udal-orde-nantzak idazten eta onartzen ziren lekua zen.

Hemen bukatzen da Aro Modernoan barrena egindako ibilaldia. Ibilaldia luzatu nahi baduzu mahastien arteko landa-bideak jarraituz, kode hau erabil ezazu hautazko ibilbide bat jarrait-zeko (5,9 km), Wikiloc aplikazioan eskuragai. Hori eginez gero, Nabaleko sakanaren ondo-tik pasatuko zara, non soro mediterraneoaren usainak hauteman eta hainbat txabola ikusi ahal izango dituzun, jatorrizko ibilbideari be-rriro ekin aurretik.



Jarraitu kode hau mugikortasun-ariketak egiteko eta indarra lantzeko.

3. IBIALDIA. IBIALDIA ARO MODERNOAN BARRENA



GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA 1H 20min

LUZERA 3,8Km

PILATUTAKO MALDA ↑20m ↓30m

LUR-MOTA *espaloia eta zolatutako kalea. Zolatutako pista. Bidea.*

OHARRAK

